

Irakasleen Hizkuntza-Prestakuntza

AITZINATU programa 2025/26 ikasturterako deialdia

2025eko irailaren 22ko deialdia, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordearena, UPV/EHUko irakasleei AITZINATU programan parte hartzeko aukera eskaintzen diena.

1. HELBURUA

AITZINATU programaren helburua da euskaraz irakasten duten irakasleei irakaskuntza-materialen hizkuntza-kalitatea hobetzeko hizkuntza-prestakuntza eta aholkularitza ematea, sortzen dituzten materialen hizkuntza-kalitatea hobetzen laguntzeko.

AITZINATU programako parte-hartzaileek proiektu bat hartu beharko dute jomugan, adibidez, irakasgai bateko apunteak edo laborategiko praktiken gidoiak prestatzea, irakasgai bateko diapositibak eguneratzea, metodologia berriak aplikatzeko materialak sortzea, irakasgaiak bideotutorialak sortzea, OCW ikastaro baterako materialak berrikustea. AITZINATU programan zehar, material horiek izango dira hizkuntza-premiak identifikatu eta hizkuntza-gaiak lantzeko abiapuntua.

Ikastaroa bereziki gomendagarria da lankidetzan proiektu bat garatzen ari diren irakasle-taldeentzat. Izan ere, horrela hizkuntzaren lanketa modu sozial eta kooperatiboan egitea bermatzen da, eta espezialitate-alorreko terminologia eta fraseologia akademikoa partekatzea errazten da.

2. AITZINATU PROGRAMAREN EZAUGARRIAK eta BALDINTZAK

Jarraian zehazten dira prestakuntza-programaren xehetasunak. Egutegia (eta erritmoa) egokitzeak aukera ere egon daiteke, taldearen arabera, betiere taldekide guztiak ados badaude.

2.1. Programazioaren dedikazioa eta egutegi-eredua

AITZINATU programa antzeko proiektuak aurrera eraman nahi dituzten irakasle-taldetan garatuko da (8-10 lagun).

- Lantalde gisa izena ematen dutenen kasuan (adibidez, irakasgai edo gai bati buruzko materialak lankidetzan prestatzen ari den 8 irakasleko talde bat), egutegia eta mintegien ordutegiak taldeko kideek zehaztu ahal izango dituzte, euren proiektuaren berezitasunen arabera.
- Talde irekien kasuan, berriz, ondoko taulan zehaztutako egutegia eta erritmoa aplikatuko dira, betiere talde ireki horretako kide guztiek adostutako beste proposamenik ez badago.

**AITZINATU: Ikasleentzako ikasgelako materialak prestatzera
zuzendutako programa**

Iraupena: 6 ECTS

Modalitatea: telematikoa

- 5 mintegi taldean (online): 10 ordu
- 5 tutoretza indibidual (online): 5 ordu
- Proiektu gidatua: 45 ordu

Mintegien ordutegia: Taldekideen artean adostekoa

Egutegia (erreferentziatzekoa):

Hasiera: 2025eko urriaren 27ko astean

Amaiera: 2026ko ekainaren 22ko astean

Taldeko online mintegiak:

Azaroan- 2 orduko mintegia

Abenduan- 2 orduko mintegia

Urtarrilean- 2 orduko mintegia

Martxoan- 2 orduko mintegia

Maiatzean- 2 orduko mintegia

- Mintegietako saioak bideo-plataforma bidez egingo dira.
- Egun eta ordu zehatza taldekideekin adostuko da.
- Saioak grabatu egingo dira, inork zuzenean parte hartzerik ez badu, mintegian landutakoa beste une batean kontsultatu ahal izateko.

Banakako online tutoretzak:

Abenduan- 1 orduko banakako tutoretza

Urtarrilean- 1 orduko banakako tutoretza

Otsailean- 1 orduko banakako tutoretza

Apirilean- 1 orduko banakako tutoretza

Ekainean- 1 orduko banakako tutoretza

- Saioak bideo-plataforma bidez egingo dira.
- Egun eta ordu zehatza norbanakoarekin adostuko da.

Plaza-kopurua: 25-30 plaza (taldekatzearen arabera)

2.2. Taldeak osatzeko eta plazak esleitzeko baldintzak

Izen-ematea banaka zein lantalde gisa egin daiteke.

Taldeak osatzeko parte-hartzaileen gutxieneko kopurua bermatu behar da: 8 lagun taldeko.

Plaza-kopurua baino eskari gehiago jasotzen badira, irizpide hauek aplikatuko dira onarpen-prozesuan:

- Lehentasuna izango dute lantalde gisa izena eman dutenek, betiere ikastegi, titulazio edo sail bereko kideak badira eta lehenengoz parte hartzen badute.
- Banakako izen-ematean:
 - Lehentasuna izango dute euskaraz irakasten duten irakasleek.
 - Lehentasuna izango dute ikasturte honetan edo aurreko bi ikasturteetan euskaraz lehenengoz eskaini diren irakasgaietako irakasleek.
 - Lehentasuna izango dute euskarazko eskaintza txikia duten graduetako irakasleek.
 - Lehentasuna izango dute AITZINATU lehenengoz parte hartzen dutenek.

3. ESKATZAILEAK: parte hartzeko baldintzak eta orientabideak

Deialdia argitaratzen denean lanean diharduten UPV/EHUko irakasleek izango dute programa honetan parte hartzeko aukera. Izena eman ahal izateko, nahitaezkoa da 2025eko urriaren 6an kontratu bat izatea indarrean UPV/EHU.

Parte hartu ahal izateko ezinbestekoa da AITZINATU programaren helburu eta irizpideekin bateragarria den proiektu bat eskuen artean izatea, eta programak eskatzen dituen konpromisoei aurre egiteko dedikazioa aurreikustea.

4. PARTE-HARTZEA eta EGIAZTAGIRIAK

Programaren egiaztagiria lortzeko, bi baldintza bete behar dira: asistentzia eta aprobetxamendua. Gutxienez % 80eko asistentzia eskatzen da, eta aprobetxamendua egiaztatzeko zenbait ebidentzia aurkeztu beharko dira.

5. IZEN-EMATEA

5.1. Eskariak

AITZINATU programan izena emateko, deialdiarekin batera aurki daitekeen formularioa **eleanizt@ehu.eus** helbidera bidali beharko da **2025eko irailaren 22tik urriaren 6ra**.

Formularioan datu hauek zehaztu beharko dira:

- Eskatzailearen edo lantaldeko kideen oinarrizko datuak: izen-abizenak, NAN zenbakia, helbide elektronikoa, campusa, ikastegia, saila, jakintza-arloa, kategoria profesionala, hizkuntza-akreditazioa, eta euskaraz irakasten dituzten irakasgaiak.
- AITZINATU programan garatuko den proiektuaren xehetasunak. Material motak zehaztuko dira, baita zein gradutako ikasleentzat edota zein irakasgaitarako erabilgarriak izan daitezkeen ere. Materialaren gutxi gorabeherako bolumena ere zehaztuko da. Era berean, zehaztuko da materialak euskarri tradizionaletan ez ezik multimedia ere baliatzea aurreikusten den.

5.2. Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak argitaratzea

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak 2025eko urriaren 14an argitaratuko dira Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren webgunean. Interesdunek 5 eguneko epea izango dute alegazioak egiteko edo euren eskaria bertan behera uzteko.



5.3. Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak argitaratzea

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak 2025eko urriaren 24an argitaratuko dira Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren webgunean.

Deialdi honi buruzko edozein zalantza argitzeko, mezu elektronikoa bidali honako helbide honetara: aitziber.anakabe@ehu.eus.

Leioan, 2025eko irailaren 22an

Miren Igone Zabala Unzalu
Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordea